

**A.13.2. AZITAIN II**

A.13.2. AZITAIN II

Azalera: 14.148 m²

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Eremu hau N-634 errepideak, Ego ibaiaren ibilguak eta autobideak mugatzen dute, hiltegi zaharraren eraikina, gaur egun Lantegi Eskolaren egoitza dena barnean hartuz.

Hauek dira zona honetako proposamenak:

* Azitaingo elizaren ingurunea berrurbanizatzea. Horren inguruan, Ego ibaiaren eta N-634 errepidearen artean, plaza bat sortzea, horrekin batera tren geltoki bat ere ipiniz.

* Murrategi auzorako sarrerak hobetzea, errepide sarean esku hartuta, A.I. 140 01 Azitain Bide 2B Jarduketa Integratuaren garapenarekin gauzatuko dena, horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorreie egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuen Espazio libreen eta berdeguneen erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.06. Artikulua.- Espazio libreen eta berdeguneen erabilera (5. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan zehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.